

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Iruña Okako Udalaren Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko irailaren 2ko Erabakiaren laburpena, zeinaren bidez deialdi publikoa egiten baita administrazio batzarrei dirulaguntzak eta bestelako baliabideak emateko, 2020an obra txikiak egitearren

DDBN(Identif.): 522707

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorritik, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai:

(<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>)

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/522707>)

Lehenengoa. Onuradunak

Dirulaguntza hauen onuradun izango dira Iruña Okako udalerriko administrazio batzarrak.

Bigarrena. Xedea

Deialdi honetako dirulaguntza jasoko dezakete udalerriko honetako kontzejuen eskumenerako azpiegitura eta zerbitzuekin loturiko programa hauek:

a) Oinarrizko azpiegiturak (ura, saneamendua, argiteria, bide publikoak, etab.), eraikin publikoak eta berdeguneak gauzatu, mantendu eta hobetzeko obrak. Horren barruan sartzen dira Arabako Foru Aldundiak "Obra txikietarako" programaren bitartez finantzatutako lanak edo inbertsioak.

b) Altzari publikoak eta ekipamendua eskuratzea, mantentzea edo hobetzea. Gainera, barne egongo dira erakunde publikoek diruz lagundutako programen bitartez udalak burututako obren ondorio diren materialak edo bestelako jarduketako kostuak.

c) Kanpo uzten dira kontzejuren beraren funtzionamendu gastu arruntak.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Iruña Okako Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi zituen 2020ko irailaren 2an eta udalaren web orrian argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Gehienez ere, 55.000 euroko aurrekontu esleipena dago jasota 2020ko udal aurrekontuaren 943.734.000 partidaren dirulaguntzaren xede diren jarduerak garatzeko.

Bosgarrena. Eskerak aurkezteko epea

Eskerak eta bosgarren oinarrian aipatu diren agiriak aurkezteko epea 2020ko azaroaren 30era artekoa izango da, deialdi hau argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Langraiz Oka, 2020ko irailaren 2a

Alkate-lehendakaria

MIGUEL ÁNGEL MONTES SÁNCHEZ